



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

25525

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, indarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko ERDIBIDEKO ZUZENKETA egiten diote uhin elektromagnetikoak isurtzen dituzten euskarri eta azpiegituren erabilera eta ezarpena erregulatuko duen legea egitearen inguruan aurkeztutako legez besteko proposamenari (09/11/02/01/0579).

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bat egin dezala Europako Kontseiluko Parlamentarien Biltzarraren 1815 ebazpenarekin, eta jarraitu dezala segimendua egiten telekomunikazio-azpiegiturek, telefono mugikorrek barne, beren funtzionamenduan sorrarazitako erradiazio ez-ionizatzaileek gizakien osasunean daukaten eraginari buruzko ikerketa berriei, eta hori beste instituzio batzuek arlo honetan hartzen dituzten ekimenekin lankidetzan arituz. Eta ikerketa horien konklusioen arabera jokatu dezala, arlo honetan lege-garapena egitea saihestu gabe, osasuna babesteko helburuarekin.
2. Jarraitu ditzala, telefono mugikorren kasuan adin orotako pertsonak egin beharreko erabilerari dagokionez, hala Europar Batasunak nola Osasunaren Mundu Erakundeak egiten dituzten gomendioak.
3. Kanpainak egin ditzala umeen artean telefono mugikorrek neurrigabe erabiltzearen kontra".

EUZKO ABERTZALEAK

EUSKAL SOZIALISTAK

EUSKAL TALDE POPULARRA

ARALAR

